



Gertuan Fundazioa

Memoria 2023



Gipuzkoan babesgabetasun egoeran dauden eta adimen edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzen diegu.
Morlans Pasealekua 14 Behea | 20009 Donostia | 943 05 10 95 | gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus

A photograph of a woman standing behind a man in a wheelchair. They are on a paved path next to a large rose bush with pink flowers. The woman is wearing a white and blue patterned jacket over a white shirt. The man is wearing a blue hoodie with 'STON SMITH' and 'NEW YORK CITY' printed on it, and light-colored pants. He is looking off to the side with a serious expression. The background is a lush green garden with more flowers and trees.

Gertuan Fundazioa

Memoria 2023



40 urte. 40 urteko ibilbidea egin du fundazioak abenduaren 28an.

1983an abiatutako ibilbide hau, ahalegin eta lan onaren ibilbide luzea izateaz haratago, emankorra izan da oso. Ezin zitekeen bestela izan lagundu ditugun pertsonen, talde profesionalaren, patronatua osatzen dutenen eta gure Fundazioarekin lankidetzan diharduten boluntarioen konpromisorik, dedikazio eta ardurarik gabe. Nola bestela!

1983an, **Atzegi** Fundazioa sortu zen, senideak ez zeudenean nork artatu, zaindu eta lagundu behar zituen jakiteko kezkari erantzuna emateko.

Atzegi Babes Fundazioa izenarekin hasi eta gaur gaurkoz **Gertuan Fundazioa** izenarekin jarraitzen badugu ere, gure printzipio eta hasierako balio berei eusten diegu. Izen desberdina izan arren, hurbiltasun, gardentasun, errespetu, konpromiso eta erantzukizun berarekin lan egiten jarraitzen dugu.

Urte hauetan testuinguru sozial, juridiko eta administratiboari dagokionean, hainbat aldaketa garrantzitsu gertatu dira. Horien artean adierazgarrienetako bat tutoretzaren arloko azken lege-aldaketa izan da, 8/2021 Legea indarrean sartu baita. Horren ondorioz, aurreko epai guztiak berrikusten ari dira epaitegiak eta printzipioz, 2024ko irailerako prozedimentu guztiak berrikusi behar direnez lan handia izaten ari da.

Azpimarratu nahi dut, 2023 amaieran, laguntzak ematen dizkiegun pertsonen gogobetetasuna baloratzeko ikerketa eta azterketa bat egin dugula. Azterketa horretan, desgaitasuna duten pertsonen, beren bizi-proiektua garatu ahal izateko, pertsonen adierazten dituzten gogobetetze-maila desberdinak aztertu ditugu, elkarriketa eta inkesta sakonen bitartez.

Horrekin guztiarekin, esku artean duzu 2023ko memoria, Fundazioak urtean zehar egin dituen datuen eta jarduera nagusien laburpenarekin.

*Amaitzeko, eta urtero bezala, gure helburuak betetzeko ezinbesteko bidelaguna den **Gipuzkoako Foru Aldundiari** eskerrak emateko baliatu nahi nituzke lerrook. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet laguntzen ditugun pertsonen bizitza hobetzeko laguntzaile ditugun baliabide eta eragile sozial, juridiko eta administratibo guztiei.*


Gertuan Fundazioak lanean dihardu eta lanean jarraituko du gure esku-hartze eredua indartzeko, hurbiltasunean, errespetuan, konpromisoan eta laguntzen ditugun pertsonen eskubideen defentsa eta betebeharretan oinarrituta.

Besarkada handi bat.

Inma Hernández León

Gertuan Fundazioko lehendakaria





gure lan taldea

Gertuan Fundazioa osatzen duen lan taldea hurrengo hauek osatzen dute:

Patronatua, 14 patronatukide eta idazkaria.

Profesional-talde bat, honako hauekin:

- Zuzendari bat.
- Ekonomia-arloko arduradun bat.
- Administrari bat.
- 8 teknikari erreferente.
- 2 laguntza-laguntzaile.
- Pertsona bat praktiketan.

Fundazioak azpikontrataturako kanpoko zerbitzu profesionalak:

- Aholkulari juridikoak, auditoreak, ikerketa aplikatuko aholkulariak, etab.)



boluntariotza

Laguntzen diegun pertsonekin giza-harremanak eta laguntasun harremanak sortzea, sustatzea eta denboran mantentzea, finean, harreman sendo eta esanguratsuen sare bat sortzeak, zuzen zuzenean eragiten du pertsona guztien ongizate emozionalean. Are gehiago laguntza-sare ez oso zabala duten pertsonen kasuan.

Gure boluntariotza programaren bidez, desgaitasuna duten pertsonen harremanen esparrua handitu ahal izatea eta afektuzko, gertuko lotura esanguratsuak sortzea sustatzen dugu. Honek aldi berean, desgaitasuna duten pertsonen kultura-, jolas- eta kirol-jardueretan parte hartzea sustatzea dakar.

Programa honetako laguntza horiek, indibidualak eta naturalak dira, eta fundazioko profesionalekin koordinatuta, desgaitasuna duen pertsonarekin eta boluntarioarekin batera, adosten da laguntza-plana.

Fundazioaren misio eta balioekin bat egiten duen programa bada ere, askotan arrazoi pertsonal

batetik edo bizi-egoera pertsonal batetik abiatuta, gizarte-harreman oso esanguratsuak lortzen dira. Boluntarioen zerbitzua elementu garrantzitsua da laguntza eskaintzen diegun pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Boluntariotza programaren helburuak:

-  Laguntzak ematen dizkiegun pertsonen giza-harreman positiboak eta aberasgarriak izan ditzaten sustatzea.
-  Gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzea.
-  Desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak gizarteratzea eta hauen eskubideak defendatzea.
-  Aurreiritziak ezabatzea.
-  Elkartasuna eta parte-hartzea bezalako balioak bultzatzea.

Gertuan

Babes fundazioa - Fundación tutelar

Azuegi, 1983ko abenduaren 28an sortutako elkakidea





elkarriketa

Jose Mª Rubiños

Lehendakariorde, patrono eta
fundazioko boluntarioa 40 urtez.

Jose Mari, noiztik daramazu Fundazioarekin elkarlanean?

Duela 40 urte baino gehiago hasi nintzen, 80ko hamarkadan hain zuzen. Gipuzkoako notarioa zen Jose Mª Segura buru zuen lan talde batekin hasi ginen. Gogoan dut fundazioa 1983ko abenduaren 28an sortu zela. Aurretik ere Atzegirekin hasiak ginen familien etorkizuna prestatzen.

Atzegiko zuzendaritza-batzordeko kide nintzenez, Fundazioaren Patronatuko kide izatea egokitu zitzaidan. Gainera, Madrilera ere joatea egokitzen zitzaigun, zer egiten genuen eta zertan ari ginen azaltzeko. Estatuko lehen fundazioa izan zen.

Nola laguntzen dio Fundazioak adimen- eta/edo garapen- desgaitasuna duen pertsona bati?

Fundazioa familiarik ez duenari laguntza emateko aukera oso garrantzitsua da. Kako, Sebasekin hasiera eman zenekoa gogoratzen dut... haientzat garrantzitsuena “babestuta” sentitzea zen. Kezkak norbaitekin partekatzea eta haien bizitzan laguntzeko segurtasuna eta lasaitasuna izatea zen garrantzitsua.

Fundazioko erreferente-taldearen lana oso garrantzitsua da eta asko baloratu dut beti. Legea garatuz joan da, baina, azkenean, tratu pertsonalaz ari gara eta kasu bakoitzean erreferenteek lan aparta egiten dute. Pertsonak “familia bat” dutela uste dut.

Aldaketa juridiko eta sozial asko izan ditugu... Zer azpimarratuko zenuke?

Azpimarragarriena Fundazioko lantaldearen lanerako gaitasuna da, kasu bakoitza banaka aztertzen dute, eta hori benetan zaila da dagoen lan-kargarekin eta

Fundazioak dituen baliabideekin. Pertsona bakoitzarekin lan egitea funtsezkoa da, pertsona bakoitza desberdina da eta kasu bakoitza modu desberdinean tratatzen da.

Patronatuko kide izateaz gain, boluntarioa ere izan zara urte askoan. Nolakoa izan da esperientzia hori?

Laguntza behar handia duen arreba bat daukat, eta urte askoan Uliazpin dauden bi pertsona bisitatu ditut. Bi pertsona horiekin komunikatzea zaila da, baina badakit garrantzitsua dela laguntza afektibo hori eman diezaiekeen norbait izatea, eta hala erakusten zuten.

Konpromisoa eskatzen du, baina poztasun handia da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nire osasunak nire burua zaintzera behartzen nau orain eta beste pertsona batzuei emango diet lekua. Fundazioaren patronatuak oso pertsona prestatuak ditu eta niretzat ohorea eta harrotasuna izan da fundazioko kide izatea.

Fundazioko kide guztiei esango nieke "ez makaltzeko", talde handi bat dagoela eta fundazioa bide onetik doala. Fundazioa beharrezkoa da jende askorentzat, eta oso eskertuta nago bere garapenean lagundu izanagatik.

Mila esker, Jose Mari. 40 urte baino gehiagoan eman diguzun konpromisoa, dedikazioa eta maitasuna eskertzea besterik ez zaigu geratzen.





2023ko mugarriak

GURE HORIZONTEA 2023-2026 DOKUMENTUAREN ARGITALPENA

Urte honetan zehar, **Gure horizontea 2023-2026** plan estrategikoa argitaratu dugu. Bertan datozen lau urteetarako lan-ildoak jasotzen dira. Dokumentu hau idaztean garrantzi berezia eman zaio fundazioa osatzen duten eragile guztien parte-hartzeari. Hala, desgaitasun intelektuala edo garapenekoak duten eta gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza jasotzen duten pertsonak, boluntarioek, profesionalek eta patronatuak parte hartu dute, baita **Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA-DFG)** edo **Atzegik (Gertuan Fundazioaren sortzailea)** ere.

Plan Estrategikoaren dokumentua, irakurketa ulerkorrean jaso dago eta lau lan-ardatzek osatzen dute: laguntzak ematen dizkiegun pertsonak, fundazioaren posizionamendua, fundazioaren lan taldea eta jasagarritasuna. Ardatz bakoitzean, hurrengo lau urteetarako bultzatu, egin eta eragin nahi diren arloak eta ekintzak jasotzen dira.

Webgunean bertan dago eskuragarri dokumentua..

NIRE BOZKAK BALIO DU

Joan den maiatzean, udal eta foru hauteskunderen testuinguruan, **FEVAS Plena Inclusión** elkartearekin batera **Nire bozkak balio du** ekitaldia antolatu zen. Desgaitasun intelektuala, garun-paralisia eta espektro autistaren nahasmendua duten pertsonen ikusgarritasuna lehen planora ekartzea zen asmoa, eta, horrela, alderdiek kolektiboarekiko duten sentsibiltateaz haratago, gaiarekiko dituzten gizarte-politika proposamenak eta sentsibiltateak eztabaida politikoaren erdigunera ekartzea.

Ekitaldia maiatzean egin zen eta **Gertuan Fundazioaren** laguntza jasotzen duten bi pertsonak aurkeztu zuten ekitaldia Donostiako Kursaallean. Gainera, fundaziotik galderak egin zitzaizkien Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaiei.





INKESTA ETA GOGOBETETZE- AZTERKETA. SIADeco IKERKETA APLIKATUA

Urte honetan zehar, **Siadeco** ikerketa aplikatuko erakundeak inkesta eta gogobetetze-azterketa bat egin du, **Gertuan Fundazioak** adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzeko eskaintzen dizkien laguntzak baloratzeko.

Horretarako, **Siadeco**ren bidez, eskaintzen diren laguntzen balorazioaren azterketa sakona egin da. Fundazioari dagozkion erantzukizunak nola gauzatzen diren eta laguntza-neurri judizialak nola egikaritzen diren aztertu da. Kasuen jarraipena egin da balorazio hauetan eta neurri judizialen prozesuak nola gauzatzen diren eta/edo erabakiak nola hartzen diren aztertu da. Bizi-proiektuak ahalik eta modu eraginkorrean eta egokienean nola lagundu ere aztertu da ikerketa honetan.

Analisia hainbat dimentsiotan egin da. Lehenik eta behin, egiturazko dimentsio gisa izendatutako

laguntza motak aztertu dira (egoitza-laguntzak, harreman-laguntzak, gizarte-partaidetzakoak, ongizate fisiko eta emozionalekoak, lanekoak edo okupaziokoak eta ondasunetakoak edo ekonomiazkoak). Bestalde, zeharkako dimentsioak ere aztertu dira: nola laguntzen zaien autonomoagoak izaten, erabakiak hartzen, nahi duten bizitza eramaten, betebeharrak eta eskubideak betetzen.

Hori guztia egin ahal izateko, lehenik eta behin elkarrizketa sakonak egin dira erreferentziazko teknikari guztiekin, lana, funtzioak eta zereginak zehazteko eta aztertzeke, eta aldi berean hauen gogobetetze-balorazioak egiteko.

Bestalde, desgaitasun intelektuala edo garapenekoak duten 100 pertsonari baino gehiagori egin zaizkien elkarrizketen bidez, gogobetetzea ere aztertu eta baloratu da.

Horrekin guztiarekin, ondorio garrantzitsuak atera ahal izan dira **Gertuan Fundazioa**rentzat, etorkizunari begira egon daitezkeen erronka eta indar-ideiekin.

prestakuntza eta etengabeko hobekuntza

Gertuan Fundazioa osatzen duen lantaldearen garapen profesionala, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko helburuarekin, entitatetik lan taldearen gaikuntzarako, formazio-prestakuntza erraztu nahi izan da.

Horretarako, erakundearen baliabide propioak eskaintzeaz haratago, **Gertuan Fundazioa** parte den **Plena Inclusión Euskadi** eta **Liber** erakundeen lankidetzaren ezinbestekoa izan da, horrela, fundazioak dituen prestakuntza-premia antzekoak detektatu ahal izan baititugu.

Bestalde, hurrengo lau urteetarako prestakuntza-plan bat egin da urte honetan zehar.

Hona hemen **Gertuan Fundazioa**ko lantaldeak 2023an egindako ikastaro, jardunaldi eta prestakuntzen zerrenda:

- **Salut mental y discapacitat intelectual** jardunaldia.
- **Bizitzarako-planak egiterako orduan, bideratzaileak duen rolari** buruzko formakuntza.
- **Erabakiak hartzen laguntzen duten erakundeekin eraldatzea** jardunaldia.
- **Liberreko plan estrategikoan** parte hartzea.
- **Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea: eskubideak, aurrerapenak eta erronkak** gaiari buruzko prestakuntza.

• **Irisgarritasunari** buruzko prestakuntza.

• **Administrazioa: prestazioak, mendekotasunaren balorazioak...** formazioa.

• **Etika gaur egungo modernitate likidoan. Irizpide moralen fundamentuzkoari** buruzko jardunaldia.

• **Autonomian aurrera egiteak arriskuak** **ekar ditzakeenean** gaiari buruzko prestakuntza.

• **Etikari buruzko estatu topaketa** Plena Inclusión elkartearen jardunaldian parte hartzea.

• **Bioetika: Mabel Marijualen hitzaldian** formakuntza.

• **Dolua eta desgaitasuna duten pertsonak** prestakuntza.

• **Desgaitasun intelektual, laguntza-sistema eta bizi-kalitatearen hobetzea** prestakuntza.

• **Erabakiak hartzeko laguntzak emateko berrantolaketa-eredu baterantz** gaiari buruzko prestakuntza.

• **Liber-eko erakundeen gizarte-arloko topaketan** parte hartzea.

• **Gipuzkoako Batzorde Bioetikoan** parte hartzea.

• **Irakurketa errazeko** ikastaroa. **Egokitzapenaren hastapenak.**

• **Hurkoaren** jardunaldia, **8/2021 Legearen aurrerapenei eta zailtasunei** buruzkoa.





etorkizunerako konpromisoak

Fundazioaren jatorrian eta sorreran familiek zituzten zalantza, kezken artean galdera garrantzitsu bat zegoen. **Nor arduratuko da nire semeaz edo alabaz ni ez nagoenean?**

Horregatik guztiagatik, **Gertuan Fundazioatik**, desgaitasun intelektuala eta/edo garapena duten familiei etorkizuna prestatzeko informazioa, aholkua eta orientazioa ematen diegu.

2023ko abenduaren 31n, adimen- edo garapen- desgaitasuna duten pertsonen familiekin eta **Gertuan Fundazioarekin** formalizatutako etorkizunerako konpromisoak 35 izan dira guztira. 2023an etorkizunerako konpromiso bat sinatu da eta 3 baja izan ditugu.

Datu horiez gain, hasiak gara dagoeneko desgaitasuna duten beste 4 pertsona eta hauen familiekin orientazioa eskaintzen eta konpromisoa.

datos de Gertuan


193
pertsona

173 NEURRI JUDIZIALEN SISTEMA.


3 BESTE FIGURA JURIDIKOAK.

17 PRETUTELAK / BALORAZIOAN.

IZENDATUTAKO KASUEN KARGU JUDIZIALAK 2023




AZKEN 10 URTEETAKO ALTAK ETA BAJAK 2013 - 2023.




BAJAK 2023.




KARGU JUDIZIALAK DITUZTEN IZENDATUTAKO PERTSONAK FUNDAZIOAREKIN EGON DIREN DENBORAREN ARABERA




PERTSONAK GENEROAREN ARABERA 2023




PERTSONAK ADINAREN ARABERA 2023




PERTSONAK DESGAITASUN EHUNekoAREN ARABERA 2023



EGOITZA BALIABIDEETAN BIZI DIREN KASUEN EBOLUZIOA 2023



MODU INDEPENDENTEAN BIZI DIREN KASUEN EBOLUZIOA 2023







ordezkaritza taldea

Aritz E., Mikel E., Arantxa L., Manuela S., Isabel S.,
Arantxa T., Jose M^a T. taldeari elkarriketa:

Urtebete egin berri duzue Gertuan Fundazioko bozeramaileen taldean. Pozik zaudete taldean? Zertan zabiltzate orain?

Bai, pozik gaude.

Gutxi gorabehera bi hilean behin elkartzen gara gure kezkez, fundazioarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiez eta abarrez hitz egiteko.

Azkenaldian gehiago hitz egiten ari gara 40. urteurreneko jaiari buruz. Oso pozik gaude iritzia eman eta ospakizunerako ideiak proposatu ahal izango ditugulako. Ekitaldian erantzukizunak hartu nahi ditugu, eta jaiak nolakoa izatea nahi dugun erabakitzen ari gara.

Pixka bat kostatzen ari zaigu, bakoitzak bere iritzia ematen duelako, ideia desberdin bat proposatzen duelako, eta noski... adostasuna lortu behar dugu.

Ospakizunerako gogo handia dugu.

40. urteurrena igaro ondoren, zer erronka dituzue?
Zer gustatuko litzaizueke taldean lantzea?

Gu bezalako pertsonen bizitza nola hobetu dezakegunaren inguruan hitz egiten jarraitu nahi dugu.

Gustatuko litzaiguke gai desberdinetan sakontzea, adibidez, nola lagun diezagukezuen gure bizitza etorkizunera bideratzen, adibidez, zertan nahi dugun laguntza jaso eta nola, non bizi...

Zertan laguntzen dizue Gertuan Fundazioak?
Zertan laguntzea gustatuko litzaizueke?

Niri asko laguntzen didate, baina gustatuko litzaidake, adibidez, laguntza gehiago jasotzea modu independentean bizi ahal izateko, diruen gaian edo gehiago aurrezteko ere laguntza handia jasotzen dugu.

Gertuan Fundazioan dauden beste pertsona batzuen bizitzeko moduak ere ezagutu nahi genituzke, eta partekatu, beste helburu batzuk planteatu ahal izateko.

memoria ekonomikoa 2023

Zailtasun ekonomikoko urtea izan da aurtengoa ere, horren adibide da emaitza estuarekin ixtea ekitaldia.

Emandako balantzea negatiboa izan da, -20.594 € defizita izan dituzte kontuek. Kopuru hori 2023an hil den pertsona baten azken erretribuzioagatik esker ordaindu ahal izan da.

Beste urte batez, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** laguntza ekonomikoarekin jarraitu dugu, gure jardueraren finantzaketa-iturri nagusia baita.

Bestalde, 2023an ere, gure erakundearekin ekonomikoki elkarlanean aritzeagatik, **Euskadiko Kutxa** eta **Irungo Udalak** emandako laguntza ere azpimarratu nahi dugu.



emaitzen kontua

	2023	2022
Jarduera propiogatikoak erakundearen diru sarrerak	663.662 €	607.139 €
Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk	43.372 €	39.084 €
Pertsonal gastuak	546.369 €	481.371 €
Ustiapeneko beste gastu batzuk	133.656 €	131.820 €
Ibilgetuaren amortizazioa	42.897 €	42.896 €
Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	21.123 €	21.122 €
USTIAPENAREN EMAITZA	5.235 €	11.258 €
FINANTZA EMAITZA	-2.004 €	-1.547 €
EKITALDIKO EMAITZA	-20.594 €	9.711 €
EKITALDIKO EZOHIKO EMAITZA	3.231 €	

Kontu hauek, Sayma Auditores S.L. kanpo enpresak, 2024ko martxoan auditatutako kontuak izan dira.

Partaide garen erakundeak:

